

## ERRENTERIAKO UDALEKO BEDERATZI GIZARTE LANGILE

### LANPOSTU BETETZEKO 4. ARIKETA

**2022ko maiatzaren 11n** Errenteriako Udaleko gizarte langile bederatzi plaza hornitu eta betetzeko oposizio-lehiaketaren oposizio-faseko 4. ariketa egingo da.

Deialdiaren oinarrien arabera, ariketa **nahitaezkoa eta baztertzaillea** da, eta bi atal izango ditu: gaitasuna eta nortasuna. Bi ataletako proben helburua izangaiak lanpostuaren profil profesiografikora eta bete beharreko eginkizunetara egokitzen diren baloratzea izango da. Atal bakoitza gehienez 15 punturekin baloratuko da (30 puntu guztira), eta ariketa gainditzeko gutxienez 15 puntu lortu beharko dira bi ataletan.

**Idatzizko 4 proba** egingo dira eta **30 puntu emango dira guztira**. “Gai” kalifikazioa lortzeko **gutxienez 15 puntu lortu beharko dira bi atalen batura**.

<b>PROBA IDATZIAK</b>	<i>Gehienez. puntuazioa</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Aptitudeak</b></li> </ul>	<b>15 puntu</b>
1. proba	9 puntu
2. proba	6 puntu
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Nortasuna</b></li> </ul>	<b>15 puntos</b>
3. proba	6 puntu
4. proba	3 puntu
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Elkarrizketa</b></li> </ul>	6 puntu
<b>GUZTIRA PROBA PSIKOTEKNIKOAK</b>	<b>30 PUNTU</b>

Ariketak, bere osotasunean, 3 ordu inguruko iraupena izango du eta ebaluatuko dira:

#### a) Gaitasun intelektualak:

- Arazo berriak ebazteko gaitasuna dedukzio-lege logikoak aplikatuz.
- Ahozko informazioaren zentzua eta logika era inpartzialean ebaluatzeko gaitasuna.



## **b) Gaitasun pertsonalak edo jarrerari dagozkionak:**

- Lanak lehentasunaren arabera ezartzeko eta ordenatzeko gaitasuna.
- Beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko, entzuteko, interpretatzeko eta besteen kezkek ulertzeko trebetasuna. Ikuspuntu desberdinak bateratzeko eta akordio egokiak lortzeko gai izatea.
- Helburu komunak lortzeko beste batzuekin batera lan egiteko, lankidetzan aritzeko eta lantaldean integratzeko gaitasuna.
- Hainbat aukeren artean irtenbide bat aukeratzeko gaitasuna, alternatibak eta horien ondorioak baloratu ondoren.
- Egoerak modu logikoan aztertzeke eta gertakariei aurrea hartu ahal izateko gaitasuna, ingurunea aztertuz eta baloraturuz.
- Erabiltzaileen beharrak ezagutzeko eta asetzeko interesa izatea, eta modu profesionalean, aktiboan eta zuzenean jardutea.
- Erakundearen antolaketa, egitura, sistemak eta bertan dauden funtzionamendu-harremanak ulertzeko gaitasuna.
- Modu proaktiboan jarduteko prest egotea, inork etengabe gainbegiratu beharrik gabe; norberaren ekintzen erantzukizunak bere gain hartzeko gai izatea.
- Emozioak eta bulkadak kontrolatzeko gaitasuna, baita egoera eta baldintza zailetan ere.
- Egoera aldakorretara egokitzeko eta egoera horietan lan egiteko gaitasuna, modu positiboan erantzunez eta ikuspuntu berriak onartuz.

**Ariketaren egunean bertan emango dira ezagutzera proba bakoitzaren xehetasunak (iraupena, item kopurua, etab.) eta zuzentzeko eta kalifikatzeko sistema.**

## c) Elkarrizketak:

Elkarrizketa pertsonalak **maiatzaren 16tik 24ra** egingo dira. Euskal Herriko Unibertsitateko Laneko Psikologiaren, Erakundeen eta Giza Baliabideen arloko irakasle eta ikertzaileek egingo dituzte. Talde Ebaluatzaile honek, elkarrizketak egiteaz gain, balorazioa egingo du eta emaitzen azken aurkezpena egingo du.

Ebaluatu beharreko dimentsioak:

- 1- Gizarte trebetasunak: elkarrekintza egokia eskariei erantzuten dieten pertsonekin, rapport egokia mantentzea harremanetan, egoera gatazkatsuak kudeatzea, entzute aktiboa, enpatia eta asertibitatea.
- 2- Egonkortasun emozionala: emozioak kontrolatzea eta menderatzea, beste pertsona batzuen emozio ezkorrak abordatu eta maneiatzea, presiopean lan egitea eta helburuak eta emaitzak betetzeko orientazioa mantentzea.
- 3- Zerbitzuko jarrera eta bezeroarenganako orientazioa: erabiltzaileengana eta pertsonen lan-egiturarantz (lankideak, goi-mailakoak, beste eragile batzuk) orientatzea, beharrak ezagutzea, egoerei eta arazoei aurrea hartzea, eta eskariak asetzera bideratzea.
- 4- Malgutasuna: aldaketara egokitzeko gaitasuna, egoera aldakorretan eraginkortasun-estandarrak mantentzea, lanpostuan aldaketak sartzeko tolerantzia eta balio-aniztasuna.
- 5- Arazoak konpontzea: arazoak identifikatzeko, erabakiak konponbide egokiekin eta garaiz hartzeko eta proposatutako konponbideen ondorioak baloratzeko gaitasuna.